



Naturan Hezi VI. Topaketak. Ahalduntze indibidualetik ahalduntze kolektibora



29.Jun 2026

Cod. H03-26

Mod.:

Face-to-face

Edition

2026

Activity type

Summer course

Date

29.Jun 2026

Location

Parque Tecnológico de Euskadi, Campus Donostia, Edificio Central, Pº Mikeletegi, 53. 20009 Donostia (Gipuzkoa)

Languages

Basque

Academic Validity

10 hours

Organising Committee



Description

Naturan Hezi Eskola naturaguneetan hezten duen hezkuntza komunitatearen topagunea da, non ikastaroak eta urteko topaketak ospatzen diren. Topaketen helburua gai zehatz baten inguruan sakontzea da, hizlari adituei entzunez, esperientziak partekatuz, eta ikastetxeen artean elkarlanak eta sinergiak sortuz.

Lehen edizioan naturan hezteak ikastetxean zekarren eraldaketa pedagogikoa izan genuen aztergai eta, geroztik, askotarikoak izan dira topaketen bitartez jorratu eta landu ditugun gaiak. Horien artean daude gizarte ekozentrista batera salto egitearen garrantziaren ingurukoak, ustezko eguraldi desegokiaren aurrean ditugun aurreiritzien deseraikitza zuzendutakoak, Baso - eskolako saretze eta sinergien ereduak partekatzeak edo, azken edizioan egin bezala, helduok bidelagun izateko garrantziaren inguruan hitz egitera bideratutakoak.

2026 topaketei begira, naturan hezten dugun bidelagunen ahalduntzea izango dugu ardatz nagusi, gure jarduna justifikatu edo azaldu beharrean aurkitzen garen momentu horietan eragin ahal izateko. Horretarako, ordea, ereduaren arrazoiketez gure buruak tresna, diskurtso eta oinarriez janzea funtsezkoa bilakatzen da. Norberaren diskurtsoa indartzetik haratago, topaketen babesgune izaera aldarrikatu nahi dugu, gainontzekoekin konektatuta gaudela sentitu eta sare sendo bat sortzen jarraitzeko. Hortxe datza funtsean topaketaren erroak.

Jardunbideen justifikazioak auzi ugari hartu ohi ditu bere gain, jolasaren izaeraren eta garrantzitik hasi eta naturagunean praktika jarraiak dakartzan onuren azalpen beharretaraino. Topaketetan zehar, antropologia, biologia, psikologia edo pedagogia bezalako begiradetatik helduko zaie arrazoiketa hauei; jolasa, natura, gorputza, ongizatea, harremanak eta testuingurua ardatz hartuta, ezagutza teorikoa eta esperientzia praktikoa jarriko ditugu elkarrekintzan.

Hitzen eta bizipenen bidez, eguneroko egoerei zentzua emateko eta elkarri indarra emateko aukera eskaini nahi dugu, naturan hezteko kulturaren aldeko komunitate sendo bat sortzen jarraituz.

Objectives

Naturan hezten dutenen artean komunitatea sortu eta saretzea.

Eskolek naturan hezteko ibilbidean egin dituzten proposamen eta esperientziak ezagutzea eta partekatzea.

Naturan hezten duten bidelagunak ikuspegi anitzen bitartez ahalduntzea.

Naturarekin ezartzen ditugun harremanen inguruko azterketa eta hausnarketa bultzatzea.

Naturan heztearen ereduaren arrazoiketez gure buruak janzea, diskurtso eta oinarri pedagogiko eta zientifikoak landuz, ohiko azalpenetatik haratago.

Organised by

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Program

29-06-2026

08:45 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Presentation by the Director of the activity Language: Basque Irati Andoño Erdozain Kutxa Fundazioa - Baso-eskola gidaria Maialen Sistiaga Poveda Euskal Herriko Unibertsitatea - Irakasle eta ikertzailea Maite Gonzalez Lugo Kutxa Fundazioa - Baso-eskola teknikaria Erkiz Miguez Montero Kutxa Fundazioa - Baso-eskola teknikaria
09:30 - 10:10	“Txikitasunekin itsuturik handitasunaren txikitasuna ahaztu zaigu” Language: Basque Rita Aldabaldetrekua Gonzalez de Txabarri Kutxa Fundazioa - Ekimenak eta edukiak teknikaria
10:10 - 10:50	Jolasten dut, beraz banaiz
10:50 - 11:20	Break
11:20 - 12:00	““Kristalezko generazioa” izan ginen, gara eta izango gara” Language: Basque Ibon Cancio Uriarte Euskal Herriko Unibertsitatea - Irakasle eta ikertzailea
12:00 - 12:55	“Solosaldua: Zer ari gara egiten errealitatean?” Language: Basque Lidergotza Virginia Murua González Zuhaizti Eskola Publikoa - BeA eta Haur Hezkuntzako koordinatzailea, Jolas librea Adunako Herri Eskolaren ordezkaria Kanpo espazioak Vanessa Lopez Varela Alkizako Herri Ikastetxea - Heziketa Fisikoko irakaslea eta Ikasketa burua Ongizatea Irene Aguirre Urdangarin Lazkaoko Ikastola - Haur Hezkuntzako irakaslea Josune Aldanondo Iturbe Lazkaoko Ikastola - Haur Hezkuntzako irakaslea Ahalduntze indibiduala María Uriarte Artamendi Elgetako Herri Eskola - Irakaslea
12:55 - 13:00	Synthesis

13:00 - 13:45	Bazkaria Biziren eskutik
13:45 - 16:45	Participative dynamics: “Sistemen artean ernatu, eta loratzen den izana” Language: Basque Aitziber Esnaola Arribillaga Pedagogia Sistemikoa - Haur Hezkuntzako irakaslea eta Pedagogia Sistemikoan formatzailea. Larraitx Mendizabal Huitzi Pedagogia Sistemikoa - Haur Hezkuntzako irakaslea eta Pedagogia Sistemikoan formatzailea
16:45 - 17:00	Closing session Language: Basque Irati Andoño Erdozain Kutxa Fundazioa - Baso-eskola gidaria Maialen Sistiaga Poveda Euskal Herriko Unibertsitatea - Irakasle eta ikertzailea Erkiz Miguez Montero Kutxa Fundazioa - Baso-eskola teknikaria Maite Gonzalez Lugo Kutxa Fundazioa - Baso-eskola teknikaria

Directed by



Irati Andoño Erdozain

Kutxa Fundazioa

Kutxa Fundazioko Naturan Hezi Eskola eta Baso-eskola proiektuen gidaria da. EHUko Bilboko Irakasleen eskolan irakasle ikasketak burutu ditu, Haur Heziketan espezialitatea eta Bartzelonako Unibertsitatearen eskutik Ikaskuntza Espazioen Diseinua graduondoa burutu du. Graduondoko GAL-eko proiektua Amara Berri Urbietan ikastetxearen patioan oinarritu zen. Eskolak garatutako proiektu horri jarraipena emateko aukera izan zuen eta 2024an gauzatu zen patioa obra. Esperientzia handia du haur eta gazteekin bai helduekin lanean, herrialde eta hezkuntza zein laguntza ezarpen ezberdinetan. Baso Eskola edo Forest Kindergarten proiektua lideratzen ari da Eskozian urte luzez eta Bandera berdea (Eco Flag) lortzeko partaidea aktiboa izan da.



Maialen Sistiaga Poveda

EHU, Irakasle eta ikertzailea

Licenciada en Biología, cursó un máster en Biología Molecular y posteriormente un doctorado sobre virus ovinos y su evolución. Tras trabajar como investigadora en varias universidades (como British Columbia o Cagliari), comenzó como técnico en la Fundación Kutxa, donde ha trabajado durante 8 años en proyectos de educación ambiental, principalmente en proyectos como "Baso-eskola" y "Naturan Hezi". Ha sido profesora de innovación educativa en el Máster Universitario en Formación del Profesorado de la UEU y actualmente es profesora e investigadora del Departamento de Didáctica de las Ciencias Experimentales de la UPV en el grado de Educación Primaria de la facultad HEFA II de Donostia.

Teachers



Irune Aguirre Urdangarin



Rita Aldabaldetrekue Gonzalez de Txabarri

Euskaltzaleen Topagunea

Rita Aldabaldetrekue Gonzalez de Txabarri Kutxa Fundazioko teknikaria da egun eta trantsizio ekosozialarekin lotutako egitasmoen kudeaketan aritzen da. Formazioz legelaria (Deustuko Unibertsitatea, 2015) eta Lehen Hezkuntzako irakaslea (UNIR, 2023), jasangarritasun eta lidergotza gaitan espezializatu zen Suedian (Blekinge Institute of Technology, 2016). Urte batzuetan Euskaltzaleen Topaguneko kide moduan euskalgintzan lan egin ostean, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean aritu da lanean, dozentzia eta aholkularitza lanetan. Erraztailetza munduan ere esperientzia du, Art of Hosting eta Gune Irekiaren Lagunak komunitateekin, edo U Teoriari lotutako ulab taldeetan, besteak beste.



Josune Aldanondo Iturbe



Irati Andoño Erdozain

Kutxa Fundazioa

Kutxa Fundazioko Naturan Hezi Eskola eta Baso-eskola proiektuen gidaria da. EHUKo Bilboko Irakasleen eskolan irakasle ikasketak burutu ditu, Haur Heziketan espezialitatea eta Bartzelonako Unibertsitatearen eskutik Ikaskuntza Espazioen Diseinua graduondoa burutu du. Graduondoko GAL-eko proiektua Amara Berri Urbieta ikastetxearen patioan oinarritu zen. Eskolak garatutako proiektu horri jarraipena emateko aukera izan zuen eta 2024an gauzatu zen patioko obra. Esperientzia handia du haur eta gazteekin bai helduekin lanean, herrialde eta hezkuntza zein laguntza ezarpen ezberdinetan. Baso Eskola edo Forest Kindergarten proiektua lideratzen aritu da Eskozian urte luzez eta Bandera berdea (Eco Flag) lortzeko partaidea aktiboa izan da.



Ibon Cancio Uriarte


Professor of Cell Biology (University of the Basque Country)

Professor at the Science and Technology Faculty at the UPV/EHU since the year 2000 and Director of the Master's Degree in Environmental Pollution and Toxicology (2010-2020). Researcher of the 'Cellular Biology in Environmental Toxicology' consolidated research group at the Plentzia Marine Research Centre (PiE-UPV/EHU) Ibon Cancio's main line of research focuses on the molecular and cellular study of the sexual differentiation of fish, where he analyses the effects that environmental conditions - particularly pollution - can have (feminisation of the males and the intersex phenomenon). Furthermore, he coordinates biomonitoring programmes that use molecular methods to study the biodiversity of the marine environment. Director of 9 international dissertations and 18 Master's theses. 78 articles published in JCR international journals. Leader of different research projects in Europe, Spain and the Basque Country. Director of the Spanish hub of the EMBRC European research infrastructure (2014-2025). Two patents for molecular sexing of fish.



Aitziber Esnaola Arribillaga

Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU) eta Pedagogia Sistemikoan aditua. Egun, Haur Hezkuntzako irakaslea eta Pedagogia Sistemikoan formatzailea.



Maite Gonzalez Lugo

Biologian graduatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), eta unibertsitate berean Ingurumen Kutsadura eta Toxikologiako masterra egin zuen. Ondoren, zientzia eta hezkuntza uztartzeko asmoz, Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntzarako masterra egin zuen ere (UNIR). Bere ibilbidean nazioarteko esperientzia eskuratu du hainbat herrialdetan, besteak beste Australian, Hegoafrikan eta Erdialdeko Amerikan, biodibertsitatearen kontserbazioan eta ikerketan, eta hezkuntza-proiektuetan parte hartuz. Gaur egun Kutxa Fundazioan dihardu ekimen eta edukien teknikari gisa, eta bere lanaren bidez naturan oinarritutako hezkuntza sustatzen du, besteak beste Naturan Hezi eta Baso-eskola proiektuetan parte hartuz.



Adunako Herri Eskolaren ordezkaria



Vanessa Lopez Varela

Heziketa Fisikoko irakaslea eta Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatua. Alkizako Eskolako irakaslea azken lau urtetan eta bertan, kanpo espazioko irakaslea.



Larraitx Mendizabal Huitzi

-

Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakasle (EHU), Psikoterapeuta ikastaroa humanistikoan, UNEDen Acouturierren psikomotrizitatean formatua eta Pedagogia Sistemikoan aditua. Egun, Haur Hezkuntzako irakaslea eta Pedagogia Sistemikoan formatzailea.



Erkiz Miguez Montero

Kutxa Fundazioa

Lehen Hezkuntzan graduatua da Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean, Donostian. Azken urtean burututako Gradu Amaierako Lana ikasgelaz kanpoko ikaskuntza ikertzera bideratu zuen, eskola inguruneak baliabide didaktiko gisa eskaintzen dituen aukerak arakatzuz. Horrez gain, urteak eman ditu haurrekin esparru ezberdinetan lanean. Egun, Kutxa Fundazioan Baso - eskolako teknikari gisa jarduten du, eskolei naturan hezteko aholkularitza nahiz orientazio pedagogiko eta didaktikoa eskainiz, besteak beste. Gainera, Bihotz Berdeak proiektuko koordinatzailetako bat ere bada, Kutxa Fundazioan aurrera eramaten diren beste hainbat proiektuetan hezkuntza - orientatzaile gisa aritzearekin batera.



Virginia Murua González

-

Haur Hezkuntzan diplomatua. Ibilbide profesionala hezkuntza ez-formalaren eta aisialdiaren alorrean hasi nuen, eta esperientzia horrek nire izaeran eta lan egiteko moduan eragin nabarmena izan du. Ondoren, Donostialdeko eskola publiko ezberdinetan jardun dut Haur Hezkuntzako irakasle gisa, eta azken bi urteetan Zuhaitzi Eskolan BeA eginkizunak eta Haur Hezkuntzako koordinatzailearen ardura izan dut. 2025-2026 ikasturtean Baso-eskola proiektua martxan jarri dugu.



Maialen Sistiaga Poveda

EHU, Irakasle eta ikertzailea

Licenciada en Biología, cursó un máster en Biología Molecular y posteriormente un doctorado sobre virus ovinos y su evolución. Tras trabajar como investigadora en varias universidades (como British Columbia o Cagliari), comenzó como técnico en la Fundación Kutxa, donde ha trabajado durante 8 años en proyectos de educación ambiental, principalmente en proyectos como "Baso-eskola" y "Naturan

Hezi". Ha sido profesora de innovación educativa en el Máster Universitario en Formación del Profesorado de la UEU y actualmente es profesora e investigadora del Departamento de Didáctica de las Ciencias Experimentales de la UPV en el grado de Educación Primaria de la facultad HEFA II de Donostia.



María Uriarte Artamendi

Registration fees

FACE-TO-FACE	UNTIL 29-06-2026
General	50,00 EUR

Place

Parque Tecnológico de Euskadi, Campus Donostia, Edificio Central, Pº Mikeletegi, 53. 20009 Donostia (Gipuzkoa)

Pº Mikeletegi, 53. 20009 Donostia (Gipuzkoa)

Gipuzkoa